

Euskal herrietan komentuz komentu

Euskal Herriko Kaputxinoak

Los franciscanos capuchinos han ocupado un espacio renovador en Vasconia, desde 1606, tanto por la actividad pastoral de sus Conventos como por la predicación parroquial y la asociación laical de la Tercera Orden. La cultura del País les debe excelentes iniciativas. Ha sido Navarra la que se ha beneficiado más de su labor, con actuaciones importantes en Gipuzkoa, y en menor medida en Alava y Bizkaia.

Kaputxinoen hau, mugimendu frantziskotarreko erreforma baten ondorioz sortutako Ordena edo Institutua da. Italian jaio zen berau (1528), baina ez zuen Penintsula Iberiarrera sartzetik izan 1578a arte. Euskal Herriko lehenengo komentua Iruñean izan zuen (1606). Esklastrazioak fraideak sakabanatu ondoren (1840...), Ordena izanberritzean komentu zaharretakoren bat edo beste berritu zen arren, berri gehienak beste Etxe eta herrietan ireki ziren.

Lehen kaputxino haiek (1606-1840)

Lehen hasieran, Aragoiko Probintzia kaputxinoaren barrutian egon ziren euskal Hegoaldeko komentuak, Baiona (1615-1791) eta Maulekoak (1669-1792), ostera, Akitaniakoak ziren bitartean. Nafarroa Garaian komentuak ugartu ahala, bertako kaputxinoen fraidearteak nortasun nafarra indartu nahi izan zuen, autonomia irabazi eta Probintzia berria sortzeraino.

Aragoiko Probintzia kaputxinotik bereizita Kustodia beregaina eratu zuten lehenengo (1656) eta hogeitau geroago Nafarroa-Kantabriako Probintzia (1679). Ez zen hori samurra gertatu, ezta eskatimarik gabea ere, baina une hartako lehen sei komenturen gain egin zen Probintzia, hamaika komentu izatera iritsiko zena.

Probintzia nafar-kantabriar hau, gero ere, bereziki Nafarroan garatu zen, Gipuzkoan bi

komentu zituela: Iruñea (1606), Errenteria (1612), Tuter (1613), Azkoien (1625), Cintruénigo (1634), Urantzia/Los Arcos (1648), Tafalla (1658) eta Hondarribia (1663). Errenteriako komentu goiztar hark erakusten digunez, kaputxinoen Nafarroa Probintzia beregaina izan aurretik ere, gainerako euskal Hegoaldera zabaldu nahia nabaria izan zen.

Komentu-sarearen hazkuntza honek, ordea, hiru oztopo aurkitu zituen berehala: lehenengo, Burgosko frantziskotarrena (ez zuten nahi hauek lurralde berean lehian agertuko zen beste komentu frantziskotarrak), ondoren tokian tokiko apaizena (sinestunek eman zitzaketan limosnak mugatuak baitziren, denak bizitzeko), eta azkenik, Ordena barrukoa (Gaztelako Probintzia kaputxinoak ahalegin guztiak egin baitzituen, Araba eta Bizkaian Nafarroa-Kantabriako Probintziak etxerik izan ez zezan).

Elizako arazoak horrela izanik ere, nafar gizarte zibilean juxtu bestelako interesak zeuden tarteko. XVII. mendean, aurreko mendeko eraso gaztelauaren ondoren (Nafarroaren konkista, 1512), Nafarroak bere nortasun politikoa indarberritu nahi izan zuenean, nafar kaputxinoek babes ona aurkitu zuten Erreinuko Herri-Erakundeetan. Hain zuzen, kaputxino nafarrek autonomia lortzeko eta Probintzia beregaina eraikitzeko ahaleginean, Nafarroako Erakunde politikoek biziki lagundu zuten Erreinu eta



Penintsulan ez ezik Erroman ere. Eskeko Orde-
nekin XIII. mendeko Erregeek egin zutena (fran-
tziskotarrak barne), XVII. ean Herri-Erakundeek
egin zuten, nolabait, kaputxinoekin Erreinura-
ko zerbitzu erlijioso berriak indartzean.

Probintzia berria (1907)

Esklaustrazio eta gerra karlisten ostean, beste hainbat Ordenaren aldetara, kaputxinoek ere ordurarteko etxeak galdu egin zituzten, fraide-
ek apaiz diozesitar bihurtu edo erbestera joan behar izan zuten, eta batzuek euskal Iparraldean aurkitu zuten bizilekurik, adibidez Uztaritze eta Baionan (1856).

Bestelako barrutian egon ondoren, 1907an eraiki zen euskal Hegoaldeko Probintzia berria (oraingoan Aragoi ere bere baitan zuela), eta errenkan etorri ziren Komentu berriak: Iruñea-Harresiz kanpokoa (1879), Hondarribira Baionatik etorri ziren fraideak (1880), Lekaroz-en eraiki zen fraidegaiantzako Ikastetxea (1888), Zangozan frantziskotarren komentua zaharrean jarri ziren kaputxinoak (1880), komentua-eraikin berriak egin ziren Tutera (1899) eta Lizarra-Rocamadour-en (1899), Altsasun jaso zen urte askotarako Seminarioa (1906), lehendik etxerik izan gabeko Donostiako kaputxinoak ezagunak dira (1909), Iruñea-S. Antonioko komentua erekin hiriburu hartako zabalgunearan erdian jarri ziren (1937-1939).

Horien ondoren, Kontzilioa bukatuta, beste hainbat joan-etorri egon da Euskal Herriko kaputxinoen barrutian: Burlatako Etxe probintziala (1970), Erreterriako etxea (1958), parrokia izateaz gain musika-inguru bat sortu duena da (*Andra Mari* abesbatza eta *Eresbil* artxiboa), Tute-

ran berrikuntza handiak burutu ziren (1972). Bestalde ez dira falta izan Anaiarte Txikiak deitu izan diren etxebizitza arruntetako taldeak.

Komeni da hemen azpimarratuta uztea euskal kaputxinoen barruti izan berri honen izan dituen lan-eremu handi eta arrakastatsuenak: XX. mende hasieran herritar laikoekin eratutako hirugarrendarren taldeak (Nafarroan bezala Iparraldean ere); argitalpenetan, aldizkariak gogoratzeak dira (*Verdad y Caridad*, *Zeruko Argia*), euskaldunen zerbitzuan jasotako Ikastetxe handiak (Lekaroz Baztanen, Llavallol Argentinan), musikari eta musikologoaren sorkuntza emankorra (Aita Donostiaren obra, edo J.L. Ansoarena-renaren lan erraldoia).

Gerra-aurretik eta ondoren mundu zabalera joan dira fraide kaputxinoak: Txina, Guam eta Filipinetara, edo Amerikan Argentina, Txile eta Ekuadorrerara. Gerrakoan eta haren ondoren, Probintziak bortizki sofritu behar izan zuten, joera kontrajarri bortitz batek erabaki gogorrek hartu zituelako; halakoetan Argentina eta Txile izan ziren batez ere erbeste-babesleku, izan ere gerra-aurreko kaputxino anitz euskal kulturegintzan saiaturik baitzegoen, Lekaroz eta Iruñetik.

Zerrenda luzeak ematen hasi gabe, euskal idazle kaputxinoen artean aipa ditzadan euskaltzain izan digunak bederen: Aita Damaso Intzakoia (1886-1986), Polikarpo Iraizozkoa (1897-1980) edo Frantzisko Ondarra (1925-2005). Esan dezagun, oro har, azken mendeko euskal kulturegintzak emaitza ederrak jaso dituela zenbait kaputxino langile fin eta leialengandik.

Joseba Intxausti